

Orain porru haziak

AURTEN sekula baino har gehiago ikusi dut porruetan (*Allium porrum*) barrena. *Acrolepiopsis assectella* izena duen har tiki txatxu batek porruaren bihotzean zulobidea egiteko ohitura du. Porrua begi bakarreko landarea da; hosto guztiak kimu bakar baten bueltan hazten dira, baita gero lorea emateko tontorturko den gara ere. Kimu horretan sortzen dena, guriaren gurienean, bapo janez hazten da harra. Uda berrian eta udan tximeleta etortzen da, eta porruan edo inguruko lurtean arrautzak jartzen ditu. Horietatik har tikiak jaioko dira, eta zuzenean bereari ekingo diote: jan eta jan. Harrak erosi dugun porru landarean bertan etor daitezke. Baita aldatu ondoren ere, tximeletaren arrautzetatik. Ez da intsektu askorik, porruari erasotzen dionik, haren berezko defentsa naturalak –usain eta dasta biziak– gaudituta. Gaixtoena, har petral horixe.

Orain neguan hotzak pasa dituenan jartzen da porrua gozotzen. Porrusalda suspertzaile bat egiteko asmotan baratzera jo eta ustekabea, har lotsagabe arraioa! Nazka apur bat ematen du. Porru ederra sartu digu harrak. Zenbait porru gehiago hartu ere ez.

Neguan harrik gabeko porrua nahi izanez gero, bi lan hartu, zein baino zein errazagoak. Lehena, landarea muintegitik atera eta alda-



JAKOBA ERREKONDO

Porru artean azenarioak (goiko argazkian) edo apioak jartzeak lagundu egingo dizu *Acrolepiopsis assectella* harra ager ez dadin.

tu aurretik 36-48 orduz eguzkitan edukitzea. Ondo lehortu dadila. Negarrez ari den ilobak bezala, pena pixka bat ematen du; baina landareak ez du sufrutuko. Har txikia barruan apopilo badarama, hark bai; hura ur faltak akabatuko du. Gero, landarea aldatutakoan, erruz ureztatu, sakon eta sarri, ondo itsatsi arte. Bigarrena, porru tartean azenarioak jarri, edo aurrez azenarioak ereindako errenka artean porru arroilak edo errel-duak. Azenarioa bezala apioa;



J. E.

horien usaina ez zaio gustatzen tximeletari, eta ez da hurbilduko. Aldameneko baratzera joango da.

Gero, ez ahaztu, porru saila atera bezain pronto lurra harrotu. Hurrengo urterako han jarri dituzten arrautzak babesik gabe utziko dituzu.

Lantxo horiek hartuz gero, ezetz porru harrik izan hurrengo neguan! ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Bi metro inguruko hezi natural bat egin nahi nuke. Tarteka lizar eta elorri batzuk badaude baina gutxi. Zein landare izan daitezke egokiak, batez ere, haizeari eutsi eta ingurua babesteko? Badakit elorria altuera horretan ondo errenditu daitekeela, lizarrekin ordea ez

dakit inausi eta altuera horretan mantentzeko moduko landarea den, eta azpi aldean nahiko begetazio sortuko duen gure helburua lortzeko.

Xabier Herrarte (Aramaio)

Kaixo Xabier. Garrantzitsua al du hostoari neguan ere eustea? Bestela, lizarra ez da txarra, nahasi pagoa, ametza, astigarra... eta hesi koloretsu eta ikusgarria egingo da. Hostoari eustea nahitaezkoa bada: hagina, gorostia, erramua, ezpela, leilandia... Dena dela urtean bitan

behintzat kimatu. Eta ahal izanez gero gehiagotan. Zenbat eta sarriago kimatu, orduan eta hesi trinkoagoa. Azpiko alde, eta batez ere hesiaren beheko barrena ez soiltzeko azpitik goitik baino zabalago utzi beti, argia denera erraz iritsi dadin. ■